

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktuak egiteko baliabide nagusiak material birziklatuak izango direnez ez dugu arazo handirik izango hauek lortzeko. Alde batetik, lehen aipatu dugun bezala, dendetan bertan utzi ahal izango dira material birziklagarriak prozesatuko diren lekuetara guri eramateko. Hala ere, horrekin ez da nahikoa izango, beraz, Bilboko Udalarekin hitz egingo dugu egunero batzen dituzten birziklatzeko hondakinen zati bat guri emateko, eta dena ondo badoa gure ontzi propioak jarriko ditugu hiri osoan zehar. Adibidez, garbigunera eramaten diren hainbat gauza (kableak, mugikor apurtuak,...) guri zuzenean heltzeko.

